



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

**MUGARIK GABEKO
EUSKARA**

ofizialtasuna!

SARIA:
Urdazubiko
NIKOLAURENEA
erretegian, bi
lagunentzako
otordua

2018ko BURUILA

159. ALEA

NORMALITASUNA eta OFIZIALITASUNA

Etetik Plazara egitasmoan (bai irratsaioan, bai aldizkarian) eta, jakina, euskaltegi guzietan, euskara normalizatzeko egiten dugu lan. Zenbat aldiz aditu ote dugun solas hori, **normalizazioa**. Baina, preseski, zer erran nahi du? Hitzak berak erraten duen gisan, hizkuntza normaltasun osoz erabili ahal izatea gizarte-esparru eta funtzio guzi-guzietan: errate baterako, eskolan, medikuarenean, udaletxean, dendetan, merkatuan edota kalean.

Baina, noski, helburu hori beteko bada, lehenbizi lan handia egin beharko da: euskaraz ez dakiten herritarrak euskaldundu, eta geurera heldu diren etorkinak hiztun-komunitatean integratu behar dira. Gainera, euskarari balioa aitortu behar zaio. Beraz, hizkuntza berreskuratzeko eta erabilera sustatzeko hartu beharreko politikamultzoa da euskararen normalizazioa, horrela, normaltasun osoz erabili eta transmititu ahal izateko.

Helburua hizkuntza gutxitua izatetik normala izatera pasatzea bada, ofizial egin beharko da Euskal Herri osoan. Eta hortxe dugu ale honetako bigarren solas potoloa, **ofizialtasuna**. Hori ere hainbat eta hainbatetan aditu izan dugu, baina zer erran nahi du? Bada, hiztunak eskubidea izatea bere hizkuntza erabiltzeko balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin. Modu horretan, inork ez dio eskatu ahal izanen hizkuntza ofiziala ez den bertzeren batean solastatzeko; ezta erakunde publikoek edota herriko agintariek ere. Euskararen kasua nahiko konplexua da, hiru administrazioetan banatzen baita (euskal diaspora kontuan hartu gabe). Hala, Euskal Herriko eremu batzuetan, euskara ofiziala da, baina bertze batzuetan, aldiz, ez:

- Ipar Euskal Herria (Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa) Pirinio Atlantikoak departamentuan sartua dago, eta euskara ez da ofiziala (gaskoiera ere ez). Frantsesak bakarrik du ofizialtasuna.

- Hego Euskal Herria, berriz, administratiboki bi zatitan dago banatua:


Euskal Autonomia Erkidegoa (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa). Bertan, 1982. urtean onartu zuten euskararen legea, eta, geroztik, ofiziala da (gaztelaniarekin batera).

Nafarroako Foru Erkidegoa (Nafarroa Garaia). Geurean, leku batzuetan euskara ofiziala da, eta, bertze batzuetan, ez: zehazki, hiru eremutan zatitua dago lurraldea:

- Eremu euskalduna (iparraldea): euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera.
- Eremu mistoa: euskara ez da ofiziala, baina, hizkuntza-eskubide batzuk aitortuak daude: adibidez, herri-administrazioan euskara erabili edota eskolan euskaraz ikasi ahal izatea.
- Eremu ez-euskalduna (hegoaldea): hemen, euskara ez da ofiziala eta ez zaio inolako eskubiderik aitortzen. Gaztelania da hizkuntza ofizial bakarra.

Hori dena ikusita, ezin ukatu nahaste-borraste ederra egina da-goela euskararen egoera. Segur aski, irakurleak honakoa pentsatu izanen du: ailegatuko al da noizbait euskararen normalizazioa, edo utopia bat da? Etetik Plazarakook, egia erran, ez dugu galdera horren erantzunik. Dena dela, geronek behinik behin lanean gogor segituko dugu, ahal dugun neurrian, geure aletxoaren eren.

EUSKARA OFIZIALA
NAFARROA OSOAN




EUSKAL
HERRIAN
EUSKARAZ

LAN ETA LAN

Euskararen egoerari buruzko testu mardul honi zuku gehixeago ateratzeko asmoz, berridazketa batzuk prestatu dizkizugu. Hartu, bada, boligrafoa eta hasi berridazten!


- 1) Etiketetik Plazara egitasmoan eta, jakina, euskaltegi guzietan, euskara normalizatzeko egiten dugu lan.
.....**dadin**.....
- 2) Hitzak berak erraten duen gisan, hizkuntza normaltasun osoz erabili ahal izatea da normalizazioa.
.....**dioen**.....
- 3) Helburu hori beteko bada, lehenbizi lan handia egin beharko da.
.....**-tzekotan**.....
- 4) Gainera, euskarari balioa aitortu behar zaio.
.....**-tzea**.....
- 5) Baina, zer erran nahi du?
.....**erranahia?**.....
- 6) Euskararen kasua nahiko konplexua da, hiru administrazioetan banatzen baita.
.....**denez,**.....
- 7) Euskal Herriko eremu batzuetan, euskara ofiziala da.
.....**hainbat**.....
- 8) Frantsesak bakarrik du ofizialtasuna.
.....**baino ez**.....
- 9) 1982. urtean onartu zuten euskararen legea, eta, geroztik, ofiziala da.
.....**zutenetik**.....
- 10) Euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera
.....**eta**.....



ZEIN DA ZEIN?

Euskal Herriko herrien izenak aztertzean, konturatzen gara normalizazioa eta ofizialtasuna oraindik urruti daudela, batez ere, Nafarroetan, Lapurdin eta Zuberoan. Mapa honetan, hainbat herri paratu ditugu, baina izenak erdaraz daude. Ea ondorengo zerrendan dauden euskal izenekin parekatzen dituzun.

a) Erriberri:.....	j) Atarrabia:.....
b) Donibane Garazi:.....	k) Zarrakaztelu:.....
c) Laudio:.....	l) Luzaide:.....
d) Agurain:.....	m) Gaubea:.....
e) Maule-Lexarre:.....	n) Gares:.....
f) Senpere:.....	o) Urdatx-Santa Grazi:.....
g) Soraluze:.....	p) Bastida:.....
h) Turtzioz:.....	q) Orreaga:.....
i) Donibane Lohitzune:.....	



DOAKOTASUNA

BITXILOREAK

Euskara debalde ikasi ahal izateko argudio anitz badira, baina... euskara doan ikasi? Erokeria al da? Ezinezkoa? Euskararen ofizialtasuna landu dugu, eta ikusi dugu eremu batzuetan, euskara ofiziala dela eta, bertze batzuetan, berriz, ez. Horrek doakotasunaren inguruko hausnarketak, gogoetak eta abar baldintzatzen ditu. Hala ere, doakotasuna eskubidetzat hartu behar dugu; ikus dezagun zertan datzan argudio hori.

Lehenik eta behin, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalera (HEDU) joko dugu: 1996an, Bartzelonan egindako Biltzarrean onartu zen. Deklarazioak aitortzen du hizkuntza-komunitate guztiak eskubide berdinak jabe direla, -----1----- hartu gabe haien izaera juridiko edo politikoa; hizkuntza ofiziala, erregionala edo gutxiengoa den, alegia. Era berean, lurraldeetako berezko hizkuntza ezagutzea oinarritzko eskubidetzat hartu zuen HEDUK.

2016ko -----2----- aurkeztutako Donostiako Protokoloak eskubide hori betetzeko neurriak jaso zituen. Bertan, bertzeak bertze, hizkuntza gutxitua ikasi nahi duten herritarrei -----3----- ikasteko aukerak zabaldu beharra zehazten da; bai eta ikastaroak lurralde osoan eskaini beharra ere. Are gehiago, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren printzipio nagusietako bat unibertsaltasun-printzipioa da, eta, ondorioz, hizkuntzaren ezagutza unibertsala izateko neurriak -----4----- dute.

Hala, eskubideak aitortuta eta bidea definituta, aurrera egiteko borondatea baino ez da falta, eta egia erran, gaur egun, bideragarri ikusten da aldarrikapen historikotik lorpen historikorako jauzia egitea. Nola? Kontseiluak horren inguruan urrats batzuk proposatzen ditu: alde batetik, doakotasuna kudeatzeko -----5----- bakarra ezartzea (zentralizatu behar da, erraztasunak eman behar zaizkie ikasleei eta sektoreari). Bertzetik, helduak euskalduntzeko zerbitzuaren doakotasuna koordinatu eta planifikatu behar da. Izan ere, ulertezina da herria, herrialdea edo maila zein den, laguntza batzuk edo bertze batzuk jasotzea. Azkenik, doakotasuna lortzeko, diru-sail nahikoak jaso beharko -----6----- aurrekontuetan.

Bada Euskal Herrian halako eredurik? Ba, bai: EAEen, HABEk Lanbiderekin egin duen akordioa. Horren harira, txalotu behar da doakotasuna -----7----- izan duten modua: ikasleek ez dute dirurik aurreratu behar, eta ez dute azterketarik gainditu behar. Nafarroan, aldiz, doakotasunetik urruti gaude. Ofizialtasuna lortu behar da, baina, batez ere, euskara instrumentu -----8----- ez hartzeko konpromisoa lortu behar da.

Bitartean, goraipatu eta jarraitu behar dira Mendialdean eman diren urratsak: Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Malerrekaiko Zerbitzuen Mankomunitateak doakotasuna ezarrita dute dagoeneko. Baldintza batzuk jarrita, une honetan, bi eremu horietan, helduek euskara debalde ikasten ahal dute. Animo, bada, zuen aukera ailegatu da eta!



Testuan falta diren hitzak hemen behean aurkituko dituzu. Ongi aukeratu!

ERNE, SARIRAKO!

- | | | | |
|---|---|---|---|
| 1.- a) kontuan
b) kontutan
c) kontuetan | 2.- a) abenduan 17an
b) abenduaren 17n
c) abenduaren 17an | 3.- a) doahinik
b) doanik
c) dohainik | 4.- a) lentasuna
b) lehentasuna
c) leentasuna |
| 5.- a) leihatila
b) lehiatila
c) leiatila | 6.- a) ziren
b) litzateke
c) lirateke | 7.- a) ulertu
b) ulertzera
c) ulertzeko | 8.- a) politiko bezala
b) politiko moduan
c) politikotzat |



KANTU KANTARI

Euskararen aldeko kantu guziak bilduko bagenitu, alimaleko bilduma sortuko genuke; izan ere, ez dira guti gure hizkuntza zaharra goraipatzen/defendatzeko duten musikari eta taldeak. Abesti horietariko batzuk aski ezagunak dira: *Euskal Herrian euskaraz* (Xabier Amurizak idatzia eta Oskorrik musikatua), *Guk euskaraz* (Urko), *Plazara* (Pantxo eta Peio), *Kontrapas* (Bernart Etxeparek idatzia eta Xabier Letek musikatua), *Bagare* (kanta herrikoia)... Zorionez, belaunaldi berriek lekukoa hartu diete zaharrenei, eta talde gazte aunitzek ere beren ekarpenak gehitu dizkiote euskarari buruzko kantu-bildumari.



Atal honetan, guk ere lekua eman nahi izan diegu belaunaldi berriei: hona hemen 2zio rap-talde lapurtarrak 2018ko Herri Urrats bestarako konposatutako abestia, *Prefosta* abestia. Letra laburtze aldera, pixka bat moztu dugu eta errima batzuk ere kendu ditugu. Zure lana, errimak ongi kokatzea izanen da.

a- gaituzte b- erdian c- hor
d- ukan e- berrian f- idazten g- lorpena
h- lotsa i- genuena j- ezean

Lehen agian eta orain prefosta !
Gure ametsei jarraika dena posible baita
Kosta ala kosta
Koska bat gorago dago koska
Euskararen lurrera hazi berriak datoz-ta.

Ikasten, hartu, eman hitza
Transmititzen den jakintza ez baita nehoiz ahazten
Hazten ertzetatik, ametsetatik hasten...
Iragana irakurtzen ta etorkizuna(1)....

Atzokoen hitza gaurko irakaspena
Gaurko izerdia biharko(2)....
Jaso duguna da eman zigutena
Ez al da emateko jaso(3).... ?

Lotuz mihia ta bihotza
Gaindituz beldurra ta(4).....
Agian amets batzuk txiki geratu zaizkigu
Baina amets berriak ere egiten badakigu.

Ibiliz ez ote da egiten bidea ?
Erantzuna : prefosta !
Usteak uste, urratsak egin ditugu ta urratsek
egin(5)....
Hemen gira, prefosta !

Orain prefosta eta lehen agian !
Oinetako zaharrekin zenbat urrats diren egin
ibilbide(6).... :
Hizkuntza ikuspegian, hasteko, punturik ez
jartzeko esaldien(7)....

Ez gabiltza lur antzutan
Lurrak zer dakarren ez dakigun arren, batzutan
Ametsen fabrika diren prefabrikatutan
Aintz baloratzen da ez bada aintz(8)....

Izan gaitzen baikor !
Berreskura dezagun beti egon dena(9)....
Aintzetan oinarria ez al dago ertzean ?
Hizkuntzak ez baitu mugarik guk ezarri(10)....

ERANTZUNAK

LAN eta LAN (3. or.):

1) ..., euskara normaliza dadin egiten dugu lan.; 2) Hitzak berak dioen gisan, ...; 3) Helburu hori betetzekotan, ...; 4) ... balioa aitortzea beharrezkoa da.; 5) Baina zein da erranahia?; 6) Hiru administrazioetan banatzen denez, euskararen kasua nahiko konplexua da; 7) Euskal Herriko hainbat eremutan, ...; 8) Frantsesak baino ez du ofizialtasuna.; 9) 1982. urtean euskararen legea onartu zutenetik, ofiziala da.; 10) Euskara eta gaztelania ofizialak dira.

ZEIN DA ZEIN? (4. or.):

1- i; 2- f; 3- b; 4- e; 5- h; 6- c; 7- g; 8- l; 9- q; 10- o; 11- j; 12- d; 13- m; 14- n; 15- a; 16- p; 17- k

KANTU KANTARI (6. or.):

1- f; 2- g; 3- i; 4- h; 5- a; 6- e; 7- b; 8- d; 9- c; 10- j

158. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

a- 7; b- 10; c- 9; d- 3; e- 5; f- 2; g- 4; h- 8; i- 6; j- 1

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: Urdazubiko
NIKOLAURENEA erretegi,
bi lagunentzako otordua

157. aleko irabazlea:
Izaskun Zubieta Albistur
Berakoa

ETXETIK PLAZARA liburua DEBALDE!!

Eska ezazu,
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko
IKA euskaltegietan



OHARRA: erantzunak urriaren 10a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

- | | |
|-----------|-----------|
| 1 - _____ | 5 - _____ |
| 2 - _____ | 6 - _____ |
| 3 - _____ | 7 - _____ |
| 4 - _____ | 8 - _____ |



EUSKARAren KILIKA!!



alaia eta jostaria
alegre y divertido

freskoa eta naturala
fresco y natural

bixia eta osatua
estimulante y completo

ikas eta ari / aprende euskera

klasikoa eta berritzailea
clásico e innovador

**eus
kara
ren
kilika**

ika.euskaltegiak.eus

Matriculikate

euskara
errazago
egiten

ika

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**

Zatoz EUSKARAREN kilika sentitzera!!

Zeure herrian, urritik ekainera, astean 4 edo 6 ordu

MAILA GUZTIAK eta EGA, ON LINE ere bai

DEBALDE!!

MATRIKULA ZAITEZ: IKAbortziriak, 948 637 796, bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus
IKAmalerreka, 948 451 555, malerreka@ikaeuskaltegiak.eus



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

